



AGINDU JURIDIKO OROKORRAK

BERDINTASUNAREN ALORREKO MANDATUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Debeku da pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa.</p>	<p>EK: 14. art. EHAE: 9.1 art. 4/2005 Legea: 3.1 art. 3/2007 L.O.: 3tik 13ra eta 69tik 72ra arteko artikulua.</p>
<p>Deusezak izango dira negozio juridikoetan, sexuan oinarritutako bereizkeria diren edo sortzen duten egintza eta klausulak; halakoek erantzukizuna sorraraziko dute: bai benetakoak, eragingarriak eta proportzionalak diren konponketen edo kalte-ordainen sistema baten bidez, bai -hala dagokionean-, bereizkeriazko jokabideak gauzatzea prebenituko dituen zehapen-sistema eragingarri eta disuaziozko baten bidez.</p>	<p>3/2007 L.O.: 10. art.</p>
<p>Ezin da inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten jardueretarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo die laguntzarik eman, zehapenean jarritako aldirian.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.1 art. 1/1997 Legegintza-dekretua: 50.5 art.</p>
<p>Bermatu beharko da bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.1 art.</p>
<p>Neurri egokiak hartu behar dira emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.</p>	<p>EK: 9.2 art. EHAE: 9.2 art. 4/2005 Legea: 3.2 art.</p>
<p>Era berean, bermatu egin beharko da ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztupo horiek bertan behera uztea zehazten da (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).</p>	<p>4/2005 Legea: 3.2 art.</p>



BERDINTASUNAREN ALORREKO MANDATUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dira sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezten bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrizanei dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.3 art.</p>
<p>Politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatu behar da, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko den.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.4 art. 3/2007 L.O.: 15. art.</p>
<p>Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dira, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko.</p>	<p>EK: 9.2 art. EHAE: 9.2 art. 4/2005 Legea: 3.5 art. 3/2007 L.O.: 11. art.</p>
<p>Sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar da, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.6 art.</p>
<p>Neurri egokiak hartu behar dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan, eta, bereziki, zuzendaritza organoetan eta kide anitzeko organoetan.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.7 eta 23. artikulua. 3/2007 L.O.: 16. art. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (EGBVP): G13 helburua</p>
<p>Eusko Jaurlaritzan, sexu biek % 40ko ordezkaritza izan behar dute gutxienez.</p>	<p>7/1981 Legea: 17.2 art.</p>
<p>Euskal herri-aginteez, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezten.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.8 art. 3/2007 L.O.: 14.3 art.</p>
<p>Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste instituzio eta erakunde batzuekin elkarlana eta lankidetzara sustatu behar da, euskal herritar guztiei bermatu ahal izateko gizonen eta emakumeen berdintasuna.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.8 art. 3/2007 L.O.: 14.3 eta 21.1 artikulua.</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzaren teknika eman behar du, toki administrazioei berdintasunaren alorreko eginkizunak betetzen laguntzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 7.2 art.</p>
<p>Foru Administrazioek behar diren sustapen-neurriak hartu behar dituzte, toki administrazioei berdintasunaren alorreko eginkizunak betetzen laguntzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 7.2 art.</p>
<p>Baldin eta euskal herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko zerbitzuak ekimen pribatuarekin hitzartu nahi badituzte, kasuan kasuko herri-administrazioak homologatu behar ditu zerbitzu horiek eskainiko dituzten aholkularitza-entresak eta -erakundeak, hitzarmenak izenpetu aurretik.</p>	<p>4/2005 Legea: 8.1 art.</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz ezarri behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eman nahi dituzten entitate pribatuak homologatzerakoan erabili behar diren gutxiengo oinarrizko betekizunak eta baldintza orokorrak; dena den, zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna kontuan duten irizpideak erabiliko dira.</p>	<p>4/2005 Legea: 8.2 art.</p>
<p>Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzen dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.</p>	<p>4/2005 Legea: 10.1 art.</p>
<p>Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu behar ditu, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean administrazio-unitate bat egongo da, eginkizun hauek betetzeko: saileko zuzendaritza eta arloak eta hori atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlanean aritzea, lege honetan eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun-planeari xedatutakoa betetzeko. Unitateok posizio organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute, bai eta beren helburuak bete ahal izateko aurrekontu-zuzkidura nahikoa ere.</p>	<p>4/2005 Legea: 11.1 art. 213/2007 Dekretua EGBVP: G2 helburua</p>
<p>Handitu egin behar da berdintasun-politikak garatzeko sailen arteko koordinazio-organok dauzkaten toki administrazioen kopurua.</p>	<p>EGBVP: G3 helburua</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Euskal herri-administrazioek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatu eta zehaztu behar dituzte nork bere aurrekontuetan.</p>	<p>4/2005 Legea: 14. art. EGBVP: G9 helburua</p>
<p>Genero-ikuspegia duten arauen eta aurrekontu-programen ehunekoa handitu behar da.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.4 art. EGBVP: G9 helburua</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du legegintzaldi bakoitzean, legegintzaldia hasi eta sei hileko epean. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak jasoko dira, koordinatuta eta osotasunean. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparaei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.1 art. 2/1982 Legea: 4.1 art.</p>
<p>Jaurlaritzaren sail guztiek bere planak edo jarduketa-programak egin behar dituzte, orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.2 art.</p>
<p>Foru-aldundiak eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsi behar dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.3 art.</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak laguntza teknikoa eman behar die udalei, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenei, berdintasun programak edo planak egiteko eta gauzatzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.3 art.</p>
<p>Foru aldundiak laguntza teknikoa eman behar diete udalei, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenei, berdintasun programak edo planak egiteko eta gauzatzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.3 art.</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiak eta udalek berdintasunerako planak edo programak, onartu baino lehen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidali behar dituzte. Izan ere, Emakundek txostena egingo du, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.</p>	<p>4/2005 Legea: 15.4 art. EGBVP: G1 helburua</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak berdintasunerako plan orokorra, EAEko gizonen eta emakumeen egoerari buruzko txosten orokorra, eremu horretan botere publikoek egindakoaren gaineko urteko memoria eta 4/2005 Legearen ebaluazioa jakinarazi behar dizkio Eusko Legebiltzarrari.</p>	<p>2/1988 Legea: 4.3 art. 4/2005 Legea: 1. xedapen gehigarria.</p>
<p>Handitu egin behar da diseinatze prozesuetan, ebaluazioan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatu duten planen ehunekoa.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.4 art. EGBVP: G10 helburua</p>
<p>Azterlanak eta estatistikak egiterakoan honako hauek egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartu. - Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu; hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko. - Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartzeko eremuetan. - Sartutako aldagaiak sexu-aldagaia oinarri hartuta ustiatu eta aztertze adinako lagin zabalak aurkeztu. - Dauden datuak ustiatu; horrela, esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonen bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izango da. - Gaur egun dauden estatistika-definizioak berrikusi eta, hala badagokio egokitu, emakumeen lana aintzatetsi eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboa saihesteko. 	<p>4/2005 Legea: 16. art. 3/2007 L.O.: 20. art. EGBVP: G4 helburua</p>
<p>Euskal herri-administrazioetako langileentzat emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan trebatzeko planak gertatu eta egikaritu behar dira, bai eta erantzukizun politikoa duten pertsonak sentibilizatzeko jarduketak egin ere.</p>	<p>4/2005 Legea: 17.2 art. EGBVP: G5 helburua</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Euskal herri-administrazioetan handitu egin behar da genero-ikuspegia duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa.</p>	<p>4/2005 Legea: 3.4 art. EGBVP: G5 helburua</p>
<p>Halaber, euskal herri-administrazioetan bermatu egin behar da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak sustatu eta diseinatzeko eta aholkularitza teknikoa eskaintzeko lanpostuetan dauden langile teknikoek esperientzia edota gaitasun zehatza dutela. Xede horrekin, ezagutzei buruzko berriazko betekizunak ezarriko dira lanpostu horietara sartu ahal izateko.</p>	<p>4/2005 Legea: 17.3 art.</p>
<p>Enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuen gaien artean, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartu behar dira.</p>	<p>4/2005 Legea: 17.4 art. EGBVP: G5 helburua</p>
<p>Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, modu aktiboan izango da kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.</p>	<p>4/2005 Legea: 18.1 art. EGBVP: G7 helburua</p>
<p>Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.</p>	<p>4/2005 Legea: 18.4 art. 3/2007 L.O.: 14.11 art.</p>
<p>Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, aztertu egin behar da administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean. Eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, administrazio-arau edo -egintzaren proiektuan neurriak sartuko dira, emakumeek eta gizonek kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran neurriak izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeke, antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeke eta sexu-berdintasuna sustatzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 19.1 eta 20.1. artikulua 7/1981 Legea: 57.1 art. EGBVP: G8 helburua</p>
<p>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan prestatzen diren arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa zuzen egiten dela egiaztatzeke, hobekuntzak proposatzeko, eta, hala badagokio, behar diren neurriak sartzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 21. art.</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Berdintasunari buruzko klausulak sartu behar dira diru-laguntzetan, kontratuetan eta hitzarmenetan.</p>	<p>4/2005 Legea: 20.2 art. 1/1997 Legegintza-dekretua: 51.1 c) art. 3/2007 L.O.: 33. eta 35. artikulua. EGBVP: G11 helburua</p>
<p>Enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauetan, klausula bat sartu behar da, administrazioaren jardueraren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna ematen diena, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak % 40 baino gutxiago badira. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.</p>	<p>4/2005 Legea: 20.4 a) art. EGBVP: G6 helburua</p>
<p>Enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauetan, klausula bat sartu behar da, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izango dela bermatzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 20.4 b) art. EGBVP : G12 helburua</p>
<p>Administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari-mota emateko sortzen diren epaimahaiak erregulatuko dituzten arauetan, klausula bat sartu behar da hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izango dela bermatzeko.</p>	<p>4/2005 Legea: 20.5 art. EGBVP: G12 helburua</p>
<p>Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan.</p>	<p>4/2005 Legea: 24.1 art.</p>
<p>Ezin izango zaie inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.</p>	<p>4/2005 Legea: 24.2 art.</p>



MANDATOS EN MATERIA DE IGUALDAD	ARTÍCULOS/NORMAS
<p>Berdintasunerako Legean aipatzen diren helburuak lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak bultzatu behar dituzte euskal herri- administrazioek.</p>	<p>4/2005 Legea: 24.3 art.</p>
<p>Euskal herri-administrazioek berdintasunerako parte-hartze organoen kopurua handitu behar dute; bereziki, beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena.</p>	<p>4/2005 Legea: 24.5 art. EGBVP: G13 helburua</p>
<p>Euskal herri-administrazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua areagotu behar da partaidetza eta kontsultarako organo eta prozesuetan.</p>	<p>4/2005 Legea: 23. art. EGBVP: G13 helburua</p>